



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-06-24ko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko ekainaren hogeita lauan, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du.: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Itziar Arkonada Lizarraga andrea eta Begoña Garmendia Vazquez andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea ez dagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua ez baita bertaratu.

Honenbestez eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak 90.2 artikuluan araututakoarekin bat, bilkura ordu berean baina bi egun beranduago egiteko ezarria geldituko da automatikoki, hots, ekainaren 26an. Aldi horretan ez bada bertarutzen agindutako gutxieneko partaide kopurua, alkateak deialdia efekturik gabe utziko du, gaien azterketa hurrengo egiten den bilkurarako geldituko direlarik.

Aurreko guztia ikusirik; kontuan hartuz **ekainaren 26an 19:00etan** Beizamako herria jaien ospakizunean murgildua izango dela; eta alkate eta zinegotziak beste ekintza batzuetan partehartzeko konpromisoa jada hartua dutela, alkateak deialdia efekturik gabe uztea erabaki du.

Aztartzeko besterik ez dagoenez, 19:10etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIATZATZEN dut.